

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUAREN AKTA**

LEHENDAKARITZA, 2018KO EKAINAREN 26A

BERTARATU DIRENAK:

Iñigo Urkullu jauna

LEHENDAKARIA

Arantxa Tapia andrea

EKONOMIAREN GARAPENeko ETA AZPIEGITURETAKO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Pedro Azpiazu jauna

OGASUN ETA EKONOMIAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna

OSASUNeko SAILBURUA

Unai Rementeria jauna

BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Markel Olano jauna

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna

ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Nekane Balluerka andrea

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Bixente Atxa jauna

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M^a Gibert jauna

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna

IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Manuel Salaverria jauna

INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Emiliano Lopez Atxurra jauna

TECNALIA-KO PRESIDENTEA

Antxon Lopez Usoz jauna

IK4-KO PRESIDENTEA

Jesús M^a Ugalde jauna

JAKIUNDE-KO PRESIDENTEA

Rosa María Garcia andrea

SIEMENS-GAMESA RENEWABLE ENERGY-KO PRESIDENTEA

Iñigo Ucin jauna
MONDRAGON KORPORAZIOKO PRESIDENTEA

Francisco Riberas jauna
GESTAMP-EKO PRESIDENTEA

Jorge Unda jauna
SENER-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

Jesús Peña jauna
LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta ongiatorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren 2018. urteko lehenengo bilerara.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak iragan 2017ko abenduaren 19an egindako azken bileraren akta onetsi da.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Lehendakariak bileraren edukia azaldu du, oro har:

“ZTBP 2020 ezartzeko aldiaren erdia igaro denean, berriz ere bildu dugu Kontseilu hau, prozesuan egon diren azken aurrerapenen laburpena egiteko. Hala, egoeraren balantzea egingo dugu, eta helburuak lortzeko hartzen ari garen neurrien berri emango dugu. Helburu horien betetze-maila aztertzeko, garatu diren jarraipen- eta monitorizazio-txostenak baliatuko ditugu.

Kasu honetan, gainera, egokia iruditu zaigu bileran gai nagusi bat jorratzea: giza kapitalaren garapena, ZTBP arrakastaz hedatzeko funtsezko elementu gisa. Berrikuntza pertsonen garatzen dute, pertsona horiek ezagutzaren balio-katean duten posizioa gorabehera. Pertsona horiek guztiek erakunde bakoitzean egindako ekarpenari esker, berme osoz egin ahalko diegu aurre enpresetan eta gizartearen bertan aurkezten diren erronka berriei.”

Ondoren, bileraren gai-zerrenda aurkeztu du. Jakinarazi duenez, azken atalaren ondoren, eta amaierako ondorioak egin baino lehen, galdera eta eskarien txanda egongo da.

Hasierako azalpen horren ostean, Lehendakariak Jesús Peñari eman dio hitza, ZTBP hedatzeko 3. fasearen garapenaren berri eman dezan.

3. ZTBPre hedapenaren 3. fasearen eta 2018ko aurrekontu-eszenatokien laburpena

Jesús Peñak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkaria den aldetik, RIS3 Euskadi estrategia ezartzeko fase eta une nagusiak gogoratu ditu: 0. Fasea Onarpena; 1. Fasea Ezarpena; 2. Fasea Hedapena; eta 3. Fasea Dinamizazioa. Ondoren, 2017-2018 aldiaren berrikuntza-funtsak babestu dituen proiektu eta ekimen esanguratsuenak laburbildu ditu. Proiektu horiek eragin zuzena dute dinamizaziorako (3. faserako) planteatutako erronka osagarriak betetzeko orduan.

Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza teknologikoko eta garapen esperimentaleko proiektuak sustatzen dituen ekimena nabarmendu du, besteak beste. Ekimen hori Lanbide Heziketako ikastetxeen sarearekin lankidetzan garatzen ari da (gaur arte, 35 ikastetxe partaide eta 159 irakasle daude, 1.039 bisita egin dira enpresa txiki eta ertainetara, eta 126 berrikuntza-proiektu daude martxan, 2018an zehar aurreikusi ziren 500en artean).

Aurrekontuari erreparatuz gero, adierazi duenez, 2014-2016 aldian Euskal Autonomia Erkidegoan 3.854 milioi euro inbertitu dira ikerketa eta garapenean, hau da, ZTBPN egindako aurreikuspenen % 93. Zehaztu duenez, aldi horretan enpresen gainean egindako inbertsioa ahuldu egin da oraintsu egondako krisi ekonomikoaren ondorioz, eta ZTBPN aurreikusitakoaren % 89ra baino ez da iritsi. Hala ere, enpresen gaineko inbertsioa berreskuratzeko itxaropenak positiboak dira. Ondorioz, datozen urteetan tarte hori murrizten joango dela espero da.

Eusko Jaurlaritzak legealdi honetarako duen konpromisoa mintzagai, azaldu duenez, 2017-2020 aldian EJK guztira 1.775 milioi euro inbertituko ditu I+G+b babesteko tresna eta programetan, hau da, hasiera batean ZTBPN aurreikusitakoa baino 136 milioi gehiago.

Ondoren, ZTBPK orain arte izan duen ezarpenaren balantze orokor positiboa egin du, honako faktore hauek oinarri hartuta: RIS3 estrategiaren hedapena burutu da, eta hobetu egin dira emaitza zientifiko-teknologiko-enpresarial nagusiak: - produktu berriak saltzearen, argitalpen zientifikoaren eta patente-igoeraren ziozko diru-sarrerak -; Europako funts lehiakorretatik datorren finantziazioa ere areagotu da. Hau da, Euskadin berrikuntza-sistemaren eraginkortasun orokorra hobetu egin da.

Azkenik, Jesús Peñak adierazi duenez, Euskadi oraindik ere berrikuntza-maila altuko eskualdea da Europako hegoaldean. Egoera pribilegiatua eduki arren, hala ere, hobetu beharreko espazioak ere baditugu, eta bereziki adi egon behar dugu hainbat alderdi garrantzitsuren gainean: a) I+Gren gaineko inbertsioaren ratioa Europako batez bestekoaren azpitik dago; b) I+Gren gaineko enpresa-inbertsioa ez da aski berreskuratu; eta c) Enpresa txiki eta ertainen gainean egindako berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa urriak dira.

Dena den, azaldu duenez, dagoeneko hartu dira hainbat neurri egoera horrekin amaitzeko: 1) Merkatutik hurbilago dagoen enpresa-arloko I+G babesteko proiektuak indartu dira; 2) Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza teknologikorako eta ez teknologikorako proiektuak babestu dira; eta 3) Enpresetan ikertzaileak sartzeko prozesua bizkortu egin da.

4. ZTBP 2018 ebaluatze txostena

Innobasqueko presidentea den aldetik, *Manu Salaverriak* aurkeztu ditu ZTBP monitorizatu eta ebaluatze sistema orokorraren barruan egindako hiru txostenen ondorio nagusiak. Txosten horien artean dago Planaren aurrerapen-maila ebaluatzen duen 3. txostena, Kontseiluak onar dezan aurkeztu dena.

Jarraian, ZTBP 2020an sei helburu eragile nagusi ezarri zirela azaldu du: 1) Baliabideak RIS3 estrategian ezarritako lehentasunezko eremuetan kontzentratzea; 2) Merkatutik hurbilago dagoen garapen teknologikoa eta oinarritzko ikerketa sustatzea; 3) Sistema emaitzetara bideratzea; 4) Nazioarteko funtsak erakartzeko bidea indartzea; 5) Enpresa berritzaileen kopurua areagotzea; eta 6) Ikertzaileen kualifikazioa hobetzea.

Manu Salaverriaren esanetan, ebaluazio-txostenaren lehen ondorioa da ZTBPreko helburu eragileen betearazpen-maila ona izan dela, aurrerapen nabarmenak egon baitira horietako lautan. Zehazki, 1) helburuan ikerketa RIS3 lehentasunezko eremuetan kontzentratzeko helburua bete da. Bestetik, 3) helburuan nabarmentzekoak dira enpresek produktu berriak saldu izana, ekoizpen zientifikoaren kalitatea, eta argitalpen-kopuruak bere kuota igo izana, Estatuko edo munduko gainerako tokietako kuoten aldean. Bestalde, 4) helburuan aurrerapen positiboa egon da I+G+b-rako nazioarteko

finantziakoa erakartzeko orduan, batez ere Horizonte 2020 programa europarretik egindako itzulkinen zioz. Doktoretza-titulazioa duten ikertzaileen portzentajea igo egin da 6) helburuan.

Hala ere, 2) helburuan zailtasunak daude merkatutik hurbilago dagoen garapen teknologiko esperimentalaren areagotzeko orduan, eta 5) helburuan enpresa berritzaileen portzentajeak ez du gora egin, batez ere eremu ez teknologikoetan (merkatuarearen eta antolakuntzaren gaineko berrikuntzan).

Ondoren, policy mix-eko programa eta tresnek ZTBPrekin helburuetan egindako ekarpena aztertzean atera diren ondorioak deskribatu ditu Manu Salaverriak. Edonola ere, azaldu duenez, azterketa gaur egun hedatzen ari da, Foru Aldundiek enpresa-berrikuntzarako ekosistema babesteko dituzten programetako batzuk sartzeko.

Azkenik, Innobasquen 2018ko Berrikuntza Txosteneko ondorio nagusiak aipatu ditu. Txosten horien emaitzek berretsi egiten dute ZTBP hedatzeko prozesuaren balantzea, bai eta aurretik Jesús Peñak azaldutako neurriak ere. Txostenaren arabera, I+Gren gaineko inbertsioa berreskuratzen ari da, baina testuingurua krisiaren aurretik genuenaren bestelakoa da. Honako hauek dira eszenatoki berriaren ezaugarri nagusiak: 1) Sistemaren eraginkortasun handiagoa; 2) I+Gn enpresa ertainaren protagonismo handiagoa; 3) Enpresa txiki eta ertainetan berrikuntzaren ahulezia, EBren aldean; 4) Enpresen I+Gren gastuaren etena, EB-28koaren aldean, krisiaren ondorioz; 5) I+Gren nazioarteko finantziakoa publikoaren nolabaiteko etena, kotarik altuenak 2014an lortu ondoren; eta 6) I+Gren arloan langileen kualifikazio hobea eta emakumeen presentzia altuagoa.

5.- Gai nagusia: Giza kapitalaren garapena ZTBPrekin

5.1.- Jaurlaritzak eta gidatze-taldeek sustatutako jarduerak

Arantxa Tapia. Fabrikazio aurreratuko giza baliabideen eta enplegurako prestakuntzaren gaineko jardunbide onak

Arantxa Tapiak hitz egin du ondoren, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak. Fabrikazio aurreratuko gidatze-taldeak enplegurako prestakuntzan eta langile kualifikatuaren garapenean izan dituen aurrerapenak aurkeztu ditu. Izan ere, talde horren jarduerak antolatzeke hiru oinarri estrategikoetako bat da aipatu arloa.

“Enplegurako prestakuntza 4.0” strategiaren helburua da, zehazki, fabrikazio aurreratuan profesional kualifikatuak eta talentua sortzeko bultzada ematea, modu integralean, prestakuntza-fase guztietan, erakundeetan beharrezkoak diren 4.0 profilak kontuan hartuta. Estrategia hori bat dator enplegiaren gidatze-taldean garatzen ari denarekin.

Estrategia hori garatzeko, lan-dinamikak ezarri dira, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, Hezkuntza Sailarekin (LHren eta Unibertsitateen Sailburuordetzak) eta Confedebaskekin lankidetzan.

Ondoren azaldu duenez, gidatze-taldearen beste bi oinarri estrategikoetatik jarduerak osagarriak abiarazi dira langileen kualifikazioaren gainean. Basque Digital Innovation Hub delakoa maila desberdinetan eta erabiltzaile desberdinentzat (ikasleak, profesionalak eta abar) sentsibilizazio eta prestakuntza teknologikoa sustatzen duen ingurua izango da. Bestetik, negozio-eredu berrien oinarritik abiatuta, zera antzeman da: enpresen artean mentalitate-aldaketa sustatu behar dela, eta

prestakuntza eta laguntza indartu behar direla, negozio-eredu berriak, produktu berriak eta zerbitzu berriak sortzeko industria 4.0 delakoan.

Industria-doktoretzak garatzen laguntzeko programa berria (BIKAINTEK).

Ondoren, industria-doktoretzak garatzen laguntzeko BIKAINTEK programa berriaren oinarriak azaldu ditu sailburuak. Programa horrek bi jarduera-ildo ditu: 1) Doktore-titulua duten eta enpresen sektorean lan egingo duten pertsonak kontratatzeko laguntza ematen du, eta, hala, enpresen lehiakortasuna eta talentua areagotzen ditu; eta 2) Beren doktore-ikasketak ZTBren Euskal Sareko agente jakin batzuetan edo enpresatan egingo dituzten pertsonak kontratatzeko laguntza ematen du, ezagutzen transferentzia hobetu eta Euskadiko industria-sarearen nazioartekotze-gaitasuna eta lehiakortasuna areagotze aldera.

Arantxa Tapiak 2018an programa berri horren gainean egin den deialdiari buruzko informazioa eman du. Deialdian doktoretza duten pertsonak kontratatzeko 34 eskari jaso dira (25 enpresatan eta 9 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteetan), eta horietatik guztira 25 onartu dira (18 enpresatan eta 7 sareko agenteetan). Halaber, doktore-tesiak garatzeko 30 eskari jaso dira (16 enpresatan eta 14 sareko agenteetan), eta horietatik 25 onartu dira (15 enpresatan eta 10 sareko agenteetan).

Azkenik, bere sailean enpresa-arloko I+G+b babesteko programak indartze aldera hainbat ekimen martxan jartzeko aukera aztertzen ari direla jakinarazi du sailburuak. Berariaz aipatu du "Basque Industry 4.0" programa indartzeko (eta, beraz, garapen esperimentalak sustatzeko) eta Hazitek programa handitzeko ideia. Era berean, berrikuntza babesteko programa berri bat planteatzen ari da, 5 eta 50 langile bitartean dituzten enpresa txikiei zuzenduta, egungo tresna-eskaintza osatzeko.

Cristina Uriarte. Prestakuntza dualeko jardunbide onen esperientziak, LHn eta Unibertsitatean; 2020rako erronkak eta ikuspegiak.

Cristina Uriarte Hezkuntzako sailburuak azaldu ditu Unibertsitatea-Enpresa 2022 euskal estrategia hedatu den lehen urtean egon diren aurrerapenak, egindako lanetatik oraintsu jaso diren bi aintzatespenak kontuan hartuta: 'University-Industry Interaction Best Practise' (London 2018) eta 'Deia Innovation Saria' (Bilbo 2017). Halaber, gogorarazi duenez, estrategia horren bi helburu handiak honako hauek dira: ezagutza zientifikoa sortu eta enpresei transferitzea, eta gaitasun handiko eta enpresen beharrezko egokitutako giza kapitala trebatzea.

Estrategiaren barruan garatu diren ekintza nabarmenen artean, sailburuak honako hauek aipatu ditu: 1) "Aipamen dual ofiziala" onartu zen 2017ko urrian; 2) Unibertsitateko lanbide duala egiaztatu da 22 titulaziotan, 370 ikasle tartean; 3) Merkatura orientatutako 6 titulazio berri garatu dira; 4) 2017ko abenduan dekretu berria onartu zen, unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren arteko lankidetzaparrua ezartzeko; 5) Automobilgintza – Industria 4.0 Gela sortzeko akordioa izapidetze-fasean dago; eta 6) 4gune klusterra sortu zen, 2017ko uztailan.

Zientzia eta Teknologiaren gaineko bokazio berriak sustatzea. STEAM Euskadi ekimena.

Cristina Uriartek STEAM¹ Euskadi estrategia berria deskribatu du. Estrategia horrek hezkuntzako etapa guztietan heziketa eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea du helburu. Halaber, STEM bokazio eta aspirazio profesionalak sustatu nahi ditu, ikasleei bereziki erreparatuta, eta gizartean kultura zientifikoa bultzatuta.

Ondoren, ikasturte honetan sustatuko diren ekimenetako batzuk (STEAM World, EU STEM Coalition, Emakumeak eta baita ikertzaileak ere, etab.) eta datozen hilabete eta urteetan garatuko diren beste batzuk aurkeztu ditu, tartean 'STEAM Euskadi Saria' eta 'STEAM Euskadi Behatokia'.

Sailburuak iragarri duenez, estrategiarekin batera webgune didaktiko bat ere martxan dago. Bertan, beste elementu batzuen artean, berariaz azaltzen da zer da STEAM heziketa, eta, horrez gain, STEM ikasketak hautatu dituzten Euskadiko ikasleen azterketa kuantitatiboa egiten da, eta Euskadiko strategiaren inspirazio-iturri izan diren nazioarteko hiru STEM estrategien (Herbehereak, AEB eta Erresuma Batua) azterketa kualitatiboa azaltzen da.

Talentuarekin eta zientziarekin lotutako beste ekimen batzuk.

Cristina Uriartek, amaitzeko, partikulen azelerazioaren eta neutronikaren gaineko ikerketa indartzeko programa berria aipatu du. Programa horrek guztira 11 milioi euroko inbertsioa izango du 2020ra bitartean. Halaber, ATLAS Errendimendu Altuko Konputazio Zentroaren (High Performance Computing) aurrerapenak ere aipatu ditu, BERCen eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen konputazio-gaitasunak indartzea xede.

Fernando Cossío (Ikerbasque). Research Fellows Euskadi programa.

Fernando Cossíok, Ikerbasqueko presidentea, gaur Zientziarako Euskal Fundazioak dituen aktibo nagusiak gogorarazi ditu: 230 ikertzaile, 11 ERC² beka, 5.600 argitalpen zientifikotik gora indexatuta, 80.000 aipamen ingururekin, eta 26 milioi euro urtero jasoak proiektu zientifikoetan.

Ondoren gogorarazi duenez, Ikerbasqueko 2021eko strategiaren helburu nagusien artean honako hauek sartzen dira: 120 ikertzaile berri kontratatzea, talentua Euskadiko erakunde zientifikoek ad-hoc eskatutako profiletara bideratzea, ERC beka lortu eta erakartzeko bultzada ematen jarraitzea, eta 2021ean Ikerbasque kontratatutako pertsonen % 40 emakumeak izan daitezela lortzea.

Fernando Cossíok Ikerbasque Research Fellows programaren zehaztasunak azaldu ditu. Azken horrek, Research Professors eta Research Associates programekin batera, talentua erakarri, aberriratu eta eusteko Ikerbasquen eskaintza osatzen du. Research Fellows programak Euskadin etorkizuneko lider zientifikoek harrobia sortzea du helburu. Lehenetsunaren artean agertzen dira: mugikortasun europarraren irizpidea bete dezatela, emakumeak izan daitezela, eta Euskadi - Basque Fellows-ekin lotura eduki dezatela (gradua edo doktoretza Euskadin egin duten edo bertan 10 urtetik gora bizi izan diren pertsonak).

Amaitzeko, Fernando Cossíok berariaz deskribatu du Research Fellows programaren 2018ko deialdian 25 nazionalitateko zientzialarien 132 eskari jaso direla, eta horietatik 25 (20+5) aurre-

STEAM: akronimoa ingelesez, Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arte eta humanitateak eta Matematikak izendatzeko.

ERC: akronimoa ingelesez, Ikerketako Europako Kontseilua izendatzeko.

hautatu direla. Eskarrietatik % 56k betetzen dute nazioarteko mugikortasunaren irizpidea, gaur egun atzerrian ikertzen ari baitira, % 48 emakume ikertzaileak dira, eta % 44k betetzen dituzte Basque Fellows irizpideak.

5.2.- Teknologiaren eta enpresaren ekimenetik abiatuta talentua sustatzeko beste jarduera batzuk

Emiliano Lopez Atxurra (Tecnalia). Talentum ekimena

Emiliano Lopez Atxurrak, Tecnaliako presidentea, pertsonen talentua garatu ahal izateak teknologia-zentroentzat duen garrantzia gogorarazi du. Izan ere, ezagutza, pasioaren motorrekin batera, ikerketan aritzen den erakunde baten aktibo nagusia da. Talentua ondasun urria da, eta European nahiz nazioartean kudeatu behar da, ezagutza sortu eta transferitzeko kateak ere globalak baitira.

Lopez Atxurrak azaldu duenez, Tecnaliaren xedea da berrikuntza eta teknologia enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetzeko tresna gisa erabil daitezela. Horretarako, bada, nahitaezkoa da enpresetan eta Tecnalian bertan talentu ikertzaile hobe sartzeko delat sustatzea.

Ondoren, Tecnaliaren Talentum ekimenak honako printzipio hauek defendatzen dituela azaldu du: 1) Berrikuntza irekia balioesten du; 2) Ikerketako proiektu eta sareetan aukerak garatzearekin eta bikaintasuna era aktiboan trukatzerekin lotutako talentuari eusten dio; eta 3) "Unibertsitate Erkidego Globala" mobilizatu eta aktibatzen du. Helburua, beraz, honako hau da: Tecnalia plataforma erakargarria bihurtzea nazioarteko ikerketa- eta transferentzia-proiektuak garatzeko.

Talentum ekimena etengabe eguneratzen ari da, Tecnaliako talentuak Europako espazio zientifiko eta teknologikoan lankidetzan lan egin behar duela oinarri hartuta. Tecnalia, Euskadi bezala, txikia da beste eskualde edo herrialde batzuetako erakunde batzuekin alderatuz gero, eta, beraz, garatu eta hazi egin behar da, lankidetzaren eta kooperazioaren bidez. Gakoa zera da, jarduera barneratzaileak eta lankideak garatzea, baztertzeko duten eta lehia sustatzen duten ekintzak sustatu ordez.

Talentum-ek nazioarteko talentua erakartzeko jarduerak bultzatzen ditu, eta, bide horretan, Euskaditik kanpora garatu den tokiko talentua Euskadira itzultzeko prozesuak ere sustatzen ditu. Frantziaren eta Alemaniaren arteko lankidetzak ere bereziki lantzen du. Izan ere, horixe da ikerketako espazio europarraren benetako erdigunea, eta bertan sortzen ari dira aukera garrantzitsuak beste teknologia-zentro eta enpresa batzuekiko sare eta proiektuetan parte hartzeko.

Amaitzeko, Lopez Atxurrak adierazi duenez, Tecnalia baditu aukerak Europako berpizkunde teknologiko eta industrialean kontuan hartu beharreko eragile eta Euskadiko ekosistema teknologikoaren gidari bihurtzeko. Talentum bezalako ekimenen bidez, berrikuntza etengabea eragin behar duen erakundea izan behar da Tecnalia. Horretarako, iragana eta etorkizuna uztartzeko gaitasuna balioetsi behar du, eta honako hirukote garrantzitsu hau sustatu: talentu ikertzailea, arlo pribatu eta publikoaren arteko lankidetzak, eta ekoizpen-sistemako enpresa eragileak.

Iñigo Ucin (Mondragon korporazioa). M4future - Berrikuntza korporatiboaren eredua. Pertsonen orientazio eta gaikuntzarako jarduerak

Iñigo Ucin, Mondragon Korporazioko presidentek, bere azalpenari hasiera emateko, ezagutza eta berrikuntza lotu ditu korporazioaren nortasun-adierazle gisa, 40ko hamarkadan eskola profesional gisa hasi zenetik.

Ondoren, talentua korporazioaren berrikuntza-ereduan (“M4Future”) txertatu du. Eredu horren helburu nagusietako bat da, izan ere, berrikuntzaren eta ekintzaitzaren kultura garatzea, pertsonen abantaila lehiakorreko elementu diferentzial gisa duten konpromisoa areagotze aldera. Estrategia hori dinamizatzen duten palanken artean aipatzen dira: lidergotza, talde-lana, proiektu partekatua eta zeregin-sistema (bertan sartzen dira pertsonen prestakuntzarekin, informazioarekin, partaidetzarekin eta autonomiarekin lotutako alderdiak). Palanka horiek hertsiki lotuta daude bilatzen diren kultura-mota desberdinekin, pertsonen gaineko emaitzekin (asebetetzea, konpromisoa, proaktibotasuna, eta abar), eta, azkenik, enpresaren emaitzekin (bezeroen asebetetzea eta fidelizazioa, emaitza ekonomiko-finantzarioak, ekoizpenaren hobekuntza, eta abar).

Iñigo Ucin adierazi duenez, garrantzitsuak dira bai ‘Industry 4.0’ paradigmarekin lotutako erronkak, bai talde kooperatiboko enpresei laguntzen egiten ari den lana, beren hasierako posizioa ebaluatu eta, neurri zehatzen bidez, enpresen eta bere negozio-ereduen digitalizazioan aurrera egite aldera.

Ondoren, Mondragon Korporazioko presidentek talentua kudeatzeko lan-lerro nagusiak deskribatu ditu, tartean: pertsonen planifikazio estrategikoa; kooperatibek talentua erakartzeko duten gaitasunaren areagotzea; eta etengabeko birkualifikazioa, malgutasuna eta enplegarritasuna. Hainbat elementu bereziren artean, honako ekimen hauek deskribatu ditu: enpleguaren eta enplegarritasunaren behatokia; prospektiba teknologikoa, demografikoa eta balio-kateetakoa, NereCoop 2020ren bidez; Mondragon People webgunea; eta prestakuntza-programa estandarren zerrenda bat, ikaskuntza-forma berriekin osatua (70-20-10).

Amaitzeko, Iñigo Ucin berariaz azpimarratu du pertsonen duten garrantzi kritikoa, enpresen lehiakortasunerako faktore diferentziala baitira. Ondorioz, alderdi hori kontuan hartu beharrekoa da egungo eta etorkizuneko enplegarritasuna baldintzatuko duten eskumen gakoak kudeatzeko orduan, bai eta lan-inguru egokia, ekintzaitza eta ikaskuntza lortzeko beharrezko aldaketak (antolakuntzan nahiz kulturaren) kudeatzeko orduan ere. Gure enpresek diharduten ekonomia globalizatuan “talentuaren gerra” sortuko da, edo dagoeneko sortu da, eta, beraz, ezinbestekoa da alderdi hori gure erakundeetan modu egokian kudeatzea.

6. Esku-hartzeak eta galderak.

Ondoren, egindako azalpenen gainean galderak, esku-hartzeak eta iruzkinak egiteko txanda ireki du Lehendakariak, partekatutako ondorioen laburpenari ekin baino lehen. Jesus M^a Ugaldek, Jakiundeko presidentek, era positiboan baloratu du BIKAINTEK programa. Bere ustez, tresna bikaina da talentu gazteari enpresetan sartzeko erraztasunak eman dakizkion, eta programa hori sustatzea gomendatzen du, Euskadiko enpresen artean ezagutzaren garrantzia bultzatu nahi bada. Halaber, gogorarazi duenez, programak arrakasta eduki dezan, beharrezkoa da ikerketarako inguru erakargarria ematea, Jakiunderen adierazpenenean jasotzen den bezala (ZTBP Euskadi 2020ren lehen

eranskinean jasoa bera³). Emiliano Lopez Achurak lehendik egin duen esku-hartzearekin lotuta daude adierazpen horiek. Jesus M^a Ugaldek ere balorazio oso positiboa egin du.

Bestalde, Nekane Balluerka EHUko errektoreak beren-beregi jaso nahi du Ikerbasque fundazioari zorionak eman behar zaizkiola, 2021. urterako honako helburu hau ezarri duelako: ikertzaile gisa kontratatuko dituen pertsonen artean % 40 emakumeak izatea.

7. Laburpena eta ondorioak

Balorazioak egin ondoren, Lehendakariak bileraren garapenaren laburpena egin du:

“2014ko abenduan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana onartu genuen, 2020. urtera begira. Arlo publiko eta pribatuaren arteko inbertsioa 2014-2020 aldirako 11.000 milioi eurotik gorakoa izango zela adierazi genuen, emaitzak lortzea baitzen inbertsioon xedea.

Gure helburua, zehazki, honako hau da: gaitasun zientifiko, teknologiko eta enpresarial guztiak lerrokatzea, espezializazio adimentsuko estrategia batean: “RIS3 Euskadi estrategia” delakoan. Horretarako, hiru lehentasun estrategiko ezarri ditugu: fabrikazio aurreratua, energia, eta biozientziak-osasuna. Gainera, lau aukera-esparru ezarri ditugu: elikadura, ekosistemak, hiriko habitata eta eraikuntza iraunkorra, eta industria kultural eta sortzaileak. Hori guztia, digitalizazioaren eszenatoki berria eta hark sektore guztietan duen eragina kontuan hartuta.

Plan honen erdialdera iritsi garen honetan, lehen etaparen balantzea positiboa dela esan dezakegu:

- *Aurrerapen garrantzitsuak egin ditugu RIS3 estrategia hedatzeko prozesuan, ia amaitzeraino.*
- *Produktu berrien salmenta, argitalpen zientifikoak eta patenteen eskariak tarteko izan ditugun diru-sarrerak areagotu egin dira, bai eta I+G+b arloko nazioarteko finantziazioa ere. Ondorioz, bistakoa da nabarmen hobetu dela zientzia, teknologia eta berrikuntzaren gure sistemak duen eraginkortasuna.*
- *100 ikerketa-proiektu estrategiko garatzeko konpromisoa dugu.*
- *Euskadi Europar Batasunean berrikuntza-maila altuko eskualdetzat jotzen da.*

Beraz, bide onetik goazela esan dezakegu. Baina ez gara horrekin konformatuko; ez baita aski. Ez da aski berrikuntza-maila altuko eskualdetzat jotzea. Hobetzen jarraitu nahi dugu, eta onenen parean egon, Euskadi Europako 50 eskualde liderren artean egon dadin. Baina bide hori ezin da berez helburua izan, tresna baizik, gure berrikuntza-sistemak are gehiago lagun dezan ekonomiaren eta gizartearen hazkunderan.

Horretarako, hiru neurri handi proposatu ditugu, honako helburu hauek lortzeko:

- *Merkatutik hurbilago dagoen enpresa-arloko I+G babesteko programak indartzea.*
- *EAEko enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa sustatzen duten proiektuak babestea.*
- *Enpresetan ikertzaileak sartzeko bidea bizkortzea.”*

ZTBPre 1. eranskina. Politika zientifikoari buruzko Jakiunderen adierazpena. Edozein politika zientifikotan honako alderdi hauek bete behar dira: 1) “Herrialdearen helburutzat” hartu behar da; 2) Helburuek eta bitartekoek bat etorri behar dute; 3) Orekatua eta malgua izan behar du; 4) Ikertzaile gazteentzako programa bereziak barne hartu behar ditu; 5) Finantzazio etengabe eta iraunkorraz gain, legezko neurri zehatzak izan behar ditu; 6) Transferitzeko ahalmena duten arloak identifikatu behar ditu; 7) Ebaluazio-prozesu pluralekin, gizarte-komunikazioko ekintzekin eta gizarte-pertzepzioaren behaketarekin osatu behar da.

Jarraian, Lehendakariak, bileraren laburpen gisa, Kontseiluari honako iruzkin hauek aurkeztu dizkio, kontuan har ditzan:

Lehenengoa: Positiboki baloratzea ZTBP 2020 hedatzeko hirugarren faseak izan duen garapena 2018. urtean. Berrikuntza Funtsak esperimentazio eta ikaskuntzako proiektu pilotuei emandako babes azpimarratzea, kontuan hartuta proiektu horien xedea, zehazki, enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza babesteko politikak eta programak hobetzea izan dela.

Bigarrena: RIS3 Euskadi estrategia hedatzeko lanaren ebaluazio eta jarraipenerako hirugarren txostena onartzea. Txostena ZTBP Euskadi 2020ren webgunean argitaratuko da: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ztbp-2020/>. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistema emaitzetara bideratzeko orduan egondako aurrerapena azpimarratu du Kontseiluak, batez ere produktu berrien fakturazioaren zioz egondako diru-sarrerekin lotuta, eta, halaber, merkatuarekiko hurbiltasuna eta garapen esperimentala indartzeko eta enpresetan ikertzaileen kualifikazioa hobetzeko beharrez nabarmendu du.


Hirugarrena: RIS3 Euskadi estrategia hedatzen protagonista diren gidatze-taldeak animatzea, pertsonen kualifikazioa hobetzeko ekimenak garatzen jarrai dezaten.

Laugarrena: Jaurjaritzak Bikaintek edo Ikerbasque Research Fellows bezalako programaren bidez talentua erakargarri, garatu eta eusteko eta unibertsitatean eta lanbide-heziketako ikastetxeetan prestakuntza duala sustatzeko egiten duen ahalegina baloratzea. Oso positiboki baloratzea 'STEAM Euskadi' estrategia berria, ikasleen artean, eta, batez ere, nesken artean, zientzia, teknologia, ingeniariak eta matematikaren gaineko bokazioak pizteko.

Bosgarrena: Enpresei dei egitea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteetan babes hartuta, bikoiztu egin dezaten ikerketaren eta berrikuntzaren gaineko apustua, beren lehiakortasuna eta tokiko nahiz nazioarteko posizioa hobetze aldera.

Seigarrena: Erakundeek enpresei I+G+b jarduerak garatzeko orduan eskaintzen dieten babes baloratzea, Jaurjaritzak legealdi honetan bere laguntza-programen hornidura urtean % 5 areagotzeko duen konpromisoari eutsiz, bereziki kontuan hartuta enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa sustatu behar direla.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 19:00etan amaitu da.


Jesus Peña Martínez

LEHENDAKARIAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANERAKO

(*) Informazioa eskuragarri dago ZTBPre webgunean: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ztbp-2020/>